

“Utopiatik nator eta banoa”

Iñaki Barcena / Irakaslekologista

Ekologista mediatikoa da, gazte-gazterik hasi zen unibertsitatean irakasle, bizkaieraz egiten duenean bularra puzten zaio.

FERMIN ETXEGOIEN
Argazkia: Iñigo Azkona

“Nuklearrik? Ez eskerrik asko” pegatina autoan daramazu, hain zuzen tubo-eskapearen gainean...

Bai, saiatzen naiz kontraesanetan bizitzen. Kotxerik gabeko lagunek enbidia puntu bat ematen didate, onartu behar dut. Baina autoa pekatua bada, zentral nuklearrak mortalak dira.

Erandion jaioa, Sestaon hazia, Deustun ikasia, Larrabetzun bizi zara... Zeu bai bizkaitarra!

Sabinoren antzera. Bizkaiko leku eta errealtate desberdinek herrialde honi bere izaera berezia ematen diote. Euskal Herriko anai-arreba nagusia izanik, biztanle kopuruagatik sikiera, ojala bide eta pausu zuzenak markatuko bagenu.

AHT sarea osatzen ari dira Espainia eta Frantzia: Euskal Herria zergatik gelditu behar da kanpo?

Frantzian oraindik ez. Eta Espainia laster Europako AHT kilometro gehien duen Estatu izango da. Eskola porrotean ere lehenengo postua du. Loturen alde nago abiadura dezenteko trenarekin baina dagoen bidea erabiliz eta ez soilik porlanezko negozioari begiratuz .

Zuzenbidea euskaraz irakasten hasi zinen garaia nola gogoratzen duzu?

Oso sasoi polita izan zen. Klasetik kanpo ikasleekin ibiltzen nintzen gehienetan, KEIA taldekideekin adibidez eta klasean euskal “ikasia”-ren sindromea gainditu behar izan nuen. Barberak kaleratu gintuen baina orain lan kontratua legala eta normala dugu, zorionez.

Zure “guapo fama” handia zen unibertsitatean: gaur egun baita ere?

Zuek ipini zenidaten eta oraindik lotsa puntu bat ematen dit.

Irakasle kaleratuen auzian barrikadaren zein aldetan sentitu zinen?

Nintzen eta nago pankartakoeekin. Oraingo errektore taldeak justizia egin nahi du eta betiko moduan trabak ari dira jartzen. Nahiz eta erabili ziren metodo batzuk konpartitu ez, errebindikazio justua da eta izan zen.

Hymalayista izan zara besteak beste. Orain Nepalen ministro maoistak daude gobernuan... Troskistak nahiago?

Nepaleko maoistena Kike De Pablori entzun nion behingoz. 18-20 urterekin entzun nuen baita ere troskistak Sri Lankako gobernuan ari zirela baina berehala porrot egin zuten. Izandako troskistak Bush, Blair eta Zapateroren gobernuetan dabilta egun eta hori seinale ona ez da. Suerte on, beraz Nepaleko maoistentzat.

Gure mendietako aize-errotekin ederra sartu ote diguten susmoa daukat...

Ez nago ados. Leku batzuk, Orduña, Ordunte... ez dira aproposak baina ikusiko bagenu Nigerian edo Ekuadorren, Bolivian zein Iraken ari direna egiten modu krudelean, gure kontsumorako agian petrolio gutxiago eta energia berriztagarrieci gehiago erreparatuko genioke.

Zure ekolojista ibilbidean utopiatik zatorz ala utopiarantz zoaz?

Nire gusturako denbora eta sasoiak ez dira linealak eta zentzu bakarrekoak, ziklikoak baizik. Utopiatik nator eta banoa. Baina utopia ez da mitoa. Pentsa eta asma daiteke, berba eginez eta arrazoiez utopiak bildu behar ditugu. ■